



# NAFARROAKO PARLAMENTUKO

## ALDIZKARI OFIZIALA

X. legegintzaldia

Iruña, 2020ko maiatzaren 29a

61. ZK.

### A U R K I B I D E A

F SAILA:

**Galderak:**

- Galdera, Herritarren Segurtasuna Babesteko 4/2015 Lege Organikoa indarrean sartu zenetik Foruzaingoak egindako zehapen-espedienteei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (2. or.).
- Galdera, enplegu plana prestatu eta onesteko egutegiari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (4. or.).
- Galdera, enplegu plana onesteko datari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (5. or.).
- Galdera, enplegu planaren prestaketari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (6. or.).
- Galdera, nekazariak eta abeltzainek produktuak zuzenean saltzea arautuko duen dekretu berria onesteari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (7. or.).
- Galdera, Nasuvinsak eta Arkitektura eta Gizartea Fundazioak sinatutako hitzarmenari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (8. or.).
- Galdera, Nafarroan Covid19aren infekzioa berresteko PCR proba egiteari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (8. or.).
- Galdera, “Ailanthus altissima” espezie exotiko inbaditzailea desagerrarazteari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (9. or.).
- Galdera, pertsonen oinarritzko beharrianak bermatzeko dirusarrerak emateari eta Tuteran, Iruñean eta Zangozan errenta bermatua izapidetzeko denbora errealarari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (11. or.).

---

**F saila:**  
**GALDERAK**

---

**Galdera, Herritarren Segurtasuna Babesteko 4/2015 Lege Organikoa indarrean sartu zenetik Foruzaingoak egindako zehapen-espeditenteei buruzkoa.**

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Adolfo Araiz Flamarique jaunak egindako galderen erantzuna, Foru Diputazioak emana, Herritarren Segurtasuna Babesteko 4/2015 Lege Organikoa indarrean sartu zenetik Foruzaingoak egindako zehapen-espeditenteei buruzkoa. Galdera 2020ko otsailaren 28ko 28. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2020ko maiatzaren 18an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

**ERANTZUNA**

EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Adolfo Araiz Flamarique jaunak idatziz erantzuteko galdera bat egin du – Parlamentuko Mahaiak izapidetzeko onartu zuen eta 20PES-34 zenbakia darama– Herritarren Segurtasuna Babesteko 4/2015 Lege Organikoa indarrean sartu zenetik Foruzaingoak egindako zehapen-espeditenteei buruz. Hona hemen Nafarroako Gobernuaren erantzuna:

1. Zenbat zehapen-espeditente ireki dituzte Foruzaingoko agenteek Herritarren Segurtasuna Babesteari buruzko 4/2015 Lege Organikoa indarrean sartu zenetik?

Herritarren segurtasunaren arloko espeditenteei izapidetzeko eskumena Nafarroako segurtasun publikoari buruzko ekainaren 20ko 8/2006 Foru Legearen lehen xedapen gehigarrian aitortzen da. Xedapen horrek “Nafarroako Foru Komunitateko

administrazioko zein agintarik duten eskumena segurtasun arloko zehapenak ezartzeko” izenburua du eta hauxe ezartzen du:

*“1. Herritarren Segurtasunaren Babesari buruzko otsailaren 21eko 1/1992 Lege Organikoren xedapen gehigarrian ezarritakoaren ondorioetarako, honakoak dira agintari eskudunak:*

*a) Nafarroako Gobernua, 600.000 euro arteko isunak eta arau-hauste oso larri, larri edo arinengatiko gainerako zehapenak ezartzeko.*

*b) Segurtasun publikoaren arloko eskumenak dituen departamentuko kontseilaria, 300.000 euro arteko isunak eta arau-hauste oso larri, larri edo arinengatiko gainerako zehapenak ezartzeko.*

*c) Segurtasun publikoaren arloko eskumenak dituen zuzendari nagusia, 60.000 euro arteko isunak eta arau-hauste oso larri, larri edo arinengatiko gainerako zehapenak ezartzeko”.*

Eskumen-esleipen horretan oinarrituta eta barne gaietako eskumena duen departamentuko egitura organikoa arautzen duten foru dekretuen arabera –egun balio duena da Lehendakartzako, Funtzio Publikoko, Barneko eta Justiziako Departamentuaren egitura ezartzen duen urriaren 30eko 259/2019 Foru Dekretua–, zehapen-espeditenteen izapidetzea Barneko Araubide Juridikoaren Zerbizuari dagokio (aipatu foru dekretuaren 64.1 h) artikulua)

Herritarren Segurtasuna Babesteko martxoaren 30eko 4/2015 Lege Organikoren babesean izapideturiko espeditenteen kopurua ondokoa da:

URTEA	ESPEDIENTE KOPURUA
2015	0*
2016	2646
2017	2049
2018	2232
2019	2099
2020	307

\*2015eko erreferentziazko kopurua 0 da; izan ere, urte horretan izapidetu ziren salaketak Herritarren Segurtasunaren Babesari buruzko otsailaren 21eko 1/1992 Lege Organikoaren babesean izapidetu ziren, eta horiek ez dira galdera honen xede.

Aipatu lege organikoa indarrean sartu zenetik igaro diren urteetako bakoitzean zenbatekoak izan dira zehapen-espeditente horien ondorioz ezarritako isunak?

Extr@ espeditenteen kudeatzaile korporatiboaren datuetan ageri denez, hona hemen zehapenei buruzko zenbatekoak, urtearen arabera:

URTEA	ZENBATEKOA (EUROTAN)
2015	0
2016	852.710,08
2017	1.234.483
2018	1.370.518,75
2019	1.204.540,75
2020	215.771

Aurreko koadroan adierazten diren zenbatekoak prozeduraren fase desberdinetan ezarritako zehapenen osoko zenbatekoari buruzkoak dira, bereizi gabe ordainketa egin den lege organikoan bertan ezarritako deskontu edo murrizketaren bat espeditentatuari aplikatu ahal zaion faseren batean (borondatez ordaintzeko epea), edota derrigorrezko diru-bilketa fasean egin den, Ekonomia eta Ogasun Departamentuaren premiamenduaren bidez eta, horrenbestez, berandutze-interesen balizko aplikazioarekin.

3. 4/2015 Lege Organikoaren 35.etik 37.era arteko artikuluetako zein apartatutan oinarritu dira ezarritako zehapenak?

Prozeduraren hasierako egintzetan aipatzen diren xedapenak, oro har, 36.16, 36.6, 37.4, 36.3 eta 36.18 artikuluetan dira. Hondarreko kasuetan, urrututako arau gisa aipatzen diren xedapenak Herritarraren Segurtasuna Babesteari buruzko Lege Organikoaren 36. eta 37. artikuluetako beste apartatu jakin batzuk dira.

### Xedapenen glosarioa

36. artikulua. Arau-hauste larriak.

3. Desordenak eragitea erabilera publikoko bide, eremu edo establezimenduetan edo bide publikoan oztopoak jartzea, hala nola hiri-altzariak, ibilgailuak, edukiontzia, pneumatikoak edo bestelako objektuak, bi kasuetan herritarren segurtasuna larriki nahasten denean.

6. Agintaritzari edo beren eginkizunetan ari diren agintaritzaren agentei ez obeditzea edo aurka egitea, betiere delitua ez bada, bai eta identifikatzeari uko egitea agintaritzak edo bere agenteek eskatutakoan edota datu faltsuak edo okerrak ematea identifikazio-prozesuetan.

16. Droga toxikoak, estupefazianteak edo substantzia psikotropikoak leku, bide, establezimendu edo garraio publikoetan kontsumitzea edo modu ez-zilegian edukitzea –nahiz eta trafikatzeko asmorik izan ez–, bai eta aipatutako lekuetan horiek kontsumitzeko erabilitako gailuak edo tresnak abandonatzea ere.

18. Droga toxikoak, estupefazianteak edo substantzia psicotropikoak modu ez-zilegian landatu edo laboratzeko ekintzak, jendeak ikusteko moduko tokietan egiten badira, arau-hauste penala ez direnean.

37. artikulua. Arau-hauste arinak.

4. Segurtasuna babesteko eginkizunetan ari diren segurtasun indar eta kidegoetako kide bati eginiko errespetu eta begirune faltak, arau-hauste penala ez direnean.

4. Aipatu artikuluen apartatuetako bakoitzeko zenbat zehapen-espeditente ireki dira lege organikoa indarrean sartu zenetik?

Urtea	HSBLOren xedapena					
	36.16	36.6	37.4	36.3	36.18	Beste batzuk
2015	0	0	0	0	0	0
2016	1.320	60	6	6	0	8
2017	2.007	44	47	38	0	6
2018	2.207	79	83	49	8	20
2019	2.043	86	51	15	3	9
2020	317	6	3	2	0	1

Hori jakinarazten da behar diren ondorioak izan ditzan.

Iruñean, 2020ko maiatzaren 15ean

Barneko Araubide Juridikoaren Zerbitzuko zuzendaria: María Pilar Zapico Revuelta

(Oharra: Txosten honetan agertzen diren datuak Nafarroako Gobernuaren Zehapen Prozedurarako Extr@ Espedienteen Kudeatzailetik atera dira.

## Galdera, enplegu plana prestatu eta onesteko egutegiari buruzkoa.

### FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin María Isabel García Malo andreak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, enplegu plana prestatu eta onesteko egutegiari buruzkoa. Galdera 2020ko otsailaren 28ko 28. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2020ko maiatzaren 18an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### ERANTZUNA

Navarra Suma talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari María Isabel García Malo andreak 10-20/PES-00038 galdera idatzia egin du, era-

gile ekonomiko eta sozialekin Elkarrizketa Sozialaren Kontseiluaren esparruan adostutako enplegu plana prestatu eta onesteko egutegiari buruz. Honako hau da Garapen Ekonomiko eta Enpresariako kontseilari Manu Ayerdi Olaizola jaunak horri buruz informatu beharrekoa:

Batzorde Iraunkorrean Enplegu Plana prestatzeko eginiko bileretan balizkotzat jotzen zen Enplegu Plana uda aurretik onestea. COVID-19ak iragan martxotik eragindako osasun larrialdi-egoeraren ondorioz, lau batzorde espezializatuek martxoan hasitako lanak etenda geratu dira.

Apirilaren 17an Kontseiluaren Batzorde Iraunkorrek bilera egin zuen koronabirusaren ondoriozko egoerak ehundura ekonomiko eta sozialean duen eragina aztertzeko. Bilera horretan adierazi zen Enplegu Plana taxutu eta onesteko ezarri zen

egutegia eta lan-metodologia zaharkituta geratu direla; hori dela eta, gaur egun ez dago inolako aurreikuspen argirik aipatu plana onesteko. Osasun krisia kontrolatuago dagoela ematen duenean eta deseskalatze-prozesuan aurrera egin ahala, Elkarrizketa Sozialaren Kontseiluaren Batzorde Iraunkorrek, egungo errealitatera egokituta, berriro ekiten ari zaie pixkanaka bilerei, egungo egoera aztertu eta hurrengo urratsak erabakitzeko xedez.

Hori guztia jakinarazten dizut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikulua betez.

Iruñean, 2020ko maiatzaren 15ean

Garapen Ekonomiko eta Enpresarialeko kontseilaria: Manu Ayerdi Olaizola

## Galdera, enplegu plana onesteko datari buruzkoa.

### FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin María Isabel García Malo andreak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, enplegu plana onesteko datari buruzkoa. Galdera 2020ko otsailaren 28ko 28. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2020ko maiatzaren 18an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### ERANTZUNA

Navarra Suma talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari María Isabel García Malo andreak 10-20/PES-00039 galdera idatzia egin du, eragile ekonomiko eta sozialekin Elkarrizketa Sozialaren Kontseiluaren esparruan adostutako enplegu plana prestatu eta onesteko egutegiari buruz. Honako hau da Garapen Ekonomiko eta Enpresarialeko kontseilari Manu Ayerdi Olaizola jaunak horri buruz informatu beharrekoa:

Batzorde Iraunkorrean Enplegu Plana prestatzeko eginiko bileretan balizkotzat jotzen zen Enplegu Plana uda aurretik onestea. COVID-19ak

iragan martxotik eragindako osasun larrialdi-egoeraren ondorioz, lau batzorde espezializatuek mar txoan hasitako lanak etenda geratu dira.

Apirilaren 17an Kontseiluaren Batzorde Iraunkorrek bilera egin zuen koronabirusaren ondoriozko egoerak ehundura ekonomiko eta sozialean duen eragina aztertzeko. Bilera horretan adierazi zen Enplegu Plana taxutu eta onesteko ezarri zen egutegia eta lan-metodologia zaharkituta geratu direla; hori dela eta, gaur egun ez dago inolako aurreikuspen argirik aipatu plana onesteko.

Osasun krisia kontrolatuago dagoela ematen duenean eta deseskalatze-prozesuan aurrera egin ahala, Elkarrizketa Sozialaren Kontseiluaren Batzorde Iraunkorrek, egungo errealitatera egokituta, berriro ekiten ari zaie pixkanaka bilerei, egungo egoera aztertu eta hurrengo urratsak erabakitzeko xedez.

Hori guztia jakinarazten dizut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikulua betez.

Iruñean, 2020ko maiatzaren 15ean

Garapen Ekonomiko eta Enpresarialeko kontseilaria: Manu Ayerdi Olaizola

## Galdera, enplegu planaren prestaketari buruzkoa.

### FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin María Isabel García Malo andreak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, enplegu planaren prestaketari buruzkoa. Galdera 2020ko otsailaren 28ko 28. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2020ko maiatzaren 18an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### ERANTZUNA

Navarra Suma talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari María Isabel García Malo andreak 10-20/PES-00040 galdera idatzia egin du, jakin nahi baitu Nafarroako Gobernuak zer mahai, noiz eta zer edukirekin deituko dituen Elkarrizketa Sozialaren Kontseiluaren esparruan adostutako enplegu plana prestatzea dela-eta. Honako hau da Garapen Ekonomiko eta Enpresarialeko kontseilari Manu Ayerdi Olaizola jaunak horri buruz informatu beharrekoa:

Batzorde Iraunkorrek 2020ko urtarrilaren 8an eginiko bileran erabaki zen Enplegu Plana lau mahai tematiko edo batzorde espezializaturen bidez taxutzea: lan harremanetarako eta enpleguaren kalitaterako batzordea, berdintasunerako batzordea, arriskuen prebentziorako eta lan osasunerako batzordea eta lehiakortasuna areagotzeko batzordea.

Batzorde bakoitzaren edukiei dagokienez:

**a) Lan arriskuen prebentziorako eta lan osasunerako batzorde espezializatua:** 2020ko martxoaren 9an bildu zen lan arriskuen prebentziorako eta lan osasunerako batzordea. Kontseiluarentzat lan-arriskuen prebentzioa eta lan-osasuna funtsezko gaia da elkarrizketa sozialaren esparruan. Batzorde espezializatuan lantzen diren gaiek bat etorri beharko dute Laneko osasunaren arloko ekintza Planarekin eta Nafarroako Lan Osasunaren Kontseiluak erabakitzen duenarekin; hala ere, batzorde honetan eragile ekonomiko eta sozialekin adosteko gaiak azter ditzake. Hona hemen alor horretan azter daitezkeen zenbait gai:

- Prebentzioaren arloko Lurraldeko Ordezkaría.
- Laguntzen deialdiak ekipo eta lantokien egokitzapenerako inbertsioak egiteko.
- Herrilaren eta lan zibilaren arloko ordezkaría.

- Mugikortasuna: in itinere istripuak.
- Prebentzio zerbitzua, enpresei ematen zaizkien zerbitzuak hobetzea.

**b) Lan-harremanetarako eta enpleguaren kalitaterako batzorde espezializatua:** martxoaren 9an bildu zen eta aztertu beharreko gai zerrenda erabaki zuen:

- Justifikatu gabeko laneko absentismoa. Hori eragiten duten arrazoiak aztertzea. Bai eta kontingentzia profesionalak eragindakoa ere.

- Sektore pribatuko behin-behinekotasuna.
- Nahi gabeko aldi baterakotasuna.
- Deskonexio digitala. Telelana eta dakartzan inplikazioak.

- Lansariak. Sektorearteko akordioaren eta bertan jasotako gomendioen berrikusketa.

- Ordutegi erregistroa, aparteko orduak eta malgutasuna.

- Lana eta bizitza pertsonala bateragarri egi-tea.

- Araudia: errelebo-kontratua.

- Prestakuntza balioaniztasunean, kontingentzia profesionalengatiko absentismoari lotua.

- Ezkutuko ekonomia eta aitortu gabeko lana. (Nafarroan, azken datuen arabera, BPGaren % 15ekoa da)

**c) Berdintasunerako batzorde espezializatua:** martxoaren 12an egin zuen lehenengo bilera, era birtualean, eta bertan erabaki zen ondoko gaiak xede izanen dituela:

- Ardurakidetzeta eta kontziliazioa.
- Landa eremuko emakumeen egoera hobetzea.
- Emakumeen enpleguaren kalitatea hobetzea.
- Administrazio publikoetako berdintasunerako planak.
- Berdintasunerako planen erregistroa eta prozedura.
- Administrazioen arteko koordinazio-taldea.
- Genero berdintasunari buruzko araudia.
- IGE metodologia.

**d) Lehiakortasuna areagotzeko batzorde espezializatua:** Martxoaren 2an erabaki zenez, S3 delakoaren esparruan lantzen ari diren ildo eta erronka estrategikoen jakitun, batzordean aztertu ahalko liratekeela ondoko gaiekin zerikusia duten proposamen zehatzak:

- Ekintzaitzarekin eta enpresak hezkuntza-sisteman duen tokiarekin loturiko edukiak.

- I+D+i: deialdien arintasuna / enpresa txikienak I+G+bra hurbilduko duen ekimenen bati buruzko hausnarketa

- Ekintzaitza: autonomo berriei inbertsioetarako laguntzak emateko aukera / barneko ekintzaitza.

- Inbertsiorako laguntzak.

- Eraldaketa digitala.

- Nazioartekotzea.

Hori guztia jakinarazten dizut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikulua betez.

Iruñean, 2020ko maiatzaren 15ean

Garapen Ekonomiko eta Enpresarialeko kontseilaria: Manu Ayerdi Olaizola

## **Galdera, nekazariak eta abeltzainek produktuak zuzenean saltzea arautuko duen dekretu berria onesteari buruzkoa.**

### *FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA*

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Maiorga Ramírez Erro jaunak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, nekazariak eta abeltzainek produktuak zuzenean saltzea arautuko duen dekretu berria onesteari buruzkoa. Galdera 2020ko otsailaren 28ko 28. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2020ko maiatzaren 18an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### **ERANTZUNA**

EH Bildu talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Maiorga Ramírez Erro jaunak idatziz erantzuteko galdera egin du (10-20-PES-00042) jakiteko “zertan den nekazariak eta abeltzainek

produktuak zuzenean saltzea arautuko duen dekretu berriaren onespena”. Hona Nafarroako Gobernuak Osasuneko kontseilariaren informazioa:

Nekazariak eta abeltzainek produktuak zuzenean saltzea arautzeko dagokionez, bada gai horri buruzko foru dekretu baterako proiektua, Osasun Departamentuak prestatua. Hala ere, foru dekretu hori izapidetzeko prozedurari ez zaio ekin otsailaren bukaeran hasi zen osasun krisia dela eta, administrazio-epe guztiak eten egin baitziren.

Hori guztia jakinarazten dizut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikulua betez.

Iruñean, 2020ko maiatzaren 14an

Osasuneko kontseilaria: Santos Induráin Orduna



## **Galdera, Nasuvinsak eta Arkitektura eta Gizartea Fundazioak sinatutako hitzarmenari buruzkoa.**

### *FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA*

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Maiorga Ramírez Erro jaunak egindako galderen erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nasuvinsak eta Arkitektura eta Gizartea Fundazioak sinatutako hitzarmenari buruzkoa. Galdera 2020ko martxoaren 6ko 31. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2020ko maiatzaren 22an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### **ERANTZUNA**

Lurraldearen Antolamenduko, Etxebizitzako, Paisaiako eta Proiektu Estrategikoetako kontseilariak, EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Maiorga Ramírez Erro jaunak eginiko 20/PES-00044 zenbakiko galdera idatzia dela-eta, eskaturiko informazioa helarazi eta honakoaren berri ematen dio:

Honekin batera doa 2019an sinatutako hitzarmena, zeinean ikus baitaiteke Nasuvinsak egindako diru-ekarpena 34.000 eurokoa izan zela, Nafarroako nahiz herrialde mugakideetako

ikasleentzako 600 euroko hamarna beka ordaintzeaz gain.

Egindako jardueren zerrenda hitzarmenaren testuan ageri da. Ultzama Nazioarteko Campusa 2019ko ekainaren 27tik uztailaren 6ra bitarte egin zen, "Hiria aldaketa berri baterantz humanizatzea: industrializazioa bide-erakusle".

Oraindik ez da 2020rako hitzarmenik formalizatu, baina horretan ari gara lanean, eta Nasuvinsaren asmoa da 2019ko hitzarmenaren eredua errepikatzea, baita diru-ekarpenari dagokionez ere.

Hori guztia jakinarazten dizut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikulua betez.

Iruñean, 2020ko maiatzaren 22an

Lurraldearen Antolamenduko, Etxebizitzako, Paisaiako eta Proiektu Estrategikoetako kontseilaria: José María Aierdi Fernández de Barrena

(Oharra: Hitzarmenaren testuaren kopia kudeaketa parlamentarioko Agora sisteman dago eskuragarri).

## **Galdera, Nafarroan Covid19aren infekzioa berresteko PCR proba egiteari buruzkoa.**

### *FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA*

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Cristina Ibarrola Guillén andreak egindako galderen erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroan Covid19aren infekzioa berresteko PCR proba egiteari buruzkoa. Galdera 2020ko martxoaren 13ko 35. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2020ko maiatzaren 18an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### **ERANTZUNA**

Navarra Suma talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Cristina Ibarrola Guillén andreak idatzizko galdera aurkeztu du (10-20/PES-00049), zeinaren bidez informazioa eskatzen baitu jakiteko zein laborategitan egiten den PCR proba". Hona Nafarroako Gobernuak Osasuneko kontseilariak horri buruz helarazten duen informazioa:

1- Nafarroan, zein laborategitan egiten da COVID-19 bidezko infekzioa baieztatzeko PCRa?



Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuan, COVID-19 bidezko infekzioa baieztatzeko PCRa Nafarroako Ospitaleguneko Mikrobiologiako Laborategian egiten da. Nafarroako Unibertsitatea Klinikako Mikrobiologia Zerbitzuan ere egiten dira proba horiek.

Halaber, proba horiek egiteko akreditazioa jaso dute Navarrabiomed/Nasertic-eko eta CIMAKo laborategiek.

2- Prozesatzen al dira PCR horiek 24 orduko ordutegian asteko egun guztietan? Hala ez bada, zergatik eta zer ordutegian prozesatzen dira? Ordutegian aldaketak izan baldin badira, zehaztu noiz egin diren ordutegi-aldaketa horiek.

Gaur egun, PCR horiek 24 orduko ordutegian asteko egun guztietan prozesatzen dira.

Hasiera batean, egunero prozesatzen ziren, 07:40etik 21:00etara. Eskaera handitu eta PCRa egiteko ekipo berriak jarri ahala, 24 orduko zerbitzua ematera pasa zen martxoaren 23ko astean. Horretarako Mikrobiologia Zerbitzuko guardiak indartu ziren (LTE eta Mikrobiologia), 24 ordutan jardun ahal izateko.

3- Zein da COVID-19ak ustez kutsatutakoei laginak hartzeko eta emaitzak jakinarazteko prozedura?

PCRa egiteko laginak Nafarroako osasun sarean hartzen dira (Nafarroako Ospitalegunea, Tute-

ra, Lizarra, Nafarroako Unibertsitatea Klinika, osasun mentaleko zentroak eta San Juan de Dios Ospitalea) larrialdietan eta ospitalean dauden pazienteei, COVIDekoa ez den arretako PCR zirkuituetan eta profesionaleri.

Halaber, laginak hartzen dizkiete paziente ambulatorioei, zentro soziosanitarioetakoiei eta alor sanitario eta soziosanitarioko profesionaleri, Ospitalez kanpoko Larrialdien Zerbitzuak Refenan eta Lizarrako eta Tuterako barrutietako ekipoek.

Gaixo ambulatorioen kasuan, komunikazioa familiako medikuaren bidez egiten da.

NAIKPa ez duten pazienteei (MUFACE, ISFAD eta MUJEU) emaitza Nafarroako Osasun Publikoaren eta Lan Osasunaren Institutuaren bidez jakinarazten zaie.

Ospitale inguruneko pazienteei kasuko mediku arduradunak jakinarazten die.

Profesionalen kasuan, Laneko Arriskuen prebentziorako Zerbitzua jartzen da harremanetan haiekin.

Hori guztia jakinarazten dizut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikulua betez.

Iruñean, 2020ko maiatzaren 12an

Osasuneko kontseilaria: Santos Induráin Orduna

## **Galdera, “*Ailanthus altissima*” espezie exotiko inbaditzailea desagerrarazteari buruzkoa.**

### **FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA**

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Maiorga Ramírez Erro jaunak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, “*Ailanthus altissima*” espezie exotiko inbaditzailea desagerrarazteari buruzkoa. Galdera 2020ko martxoaren 13ko 35. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2020ko maiatzaren 20an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### **ERANTZUNA**

EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Maiorga Ramírez Erro jaunak idatziz erantzuteko galdera bat egin du “*ailanthus altissima*” espezie exotiko inbaditzailea desagerrarazteari buruz (10-20-PES-00052). Hona hemen Landa Garapeneko eta Ingurumeneko kontseilariaren erantzuna:

Espezie hau ugari samarra da Foru Komunitatean. Batez ere Nafarroaren hegoaldeko erdiko errepideetan agertzen da (AP-15, N-134, NA-132-

A, eta abar), toki horietan landatu baitzen. Ondoren basati bihurtu da, ugaritu eta hurbileko errihabitatakat hartu dituzte, toki horietan bertako espezieak lekuz aldaraziz. Espezie inbaditzailea da, batez ere, ibai-ekosistemetan, hala nola ibaieratzeko zumardi, makaldi eta sahasietan.

Orain arte zenbait ekintza gauzatu dira Arga eta Aragoi ibaietako behe-tarteetan, ondoren azaltzen den moduan:

- 2009an, "Arga-Aragoiko Behe Tarteak" ES2200035 Kontserbazio Bereziko Eremuan dauden espezie exotikoen azterlan diagnostiko bat eta inbentario kartografiko bat egin ziren.

- 2016an, "Arga-Aragoiko Behe Tarteak" KBeko eremu geografikoan espezie aloktono eta inbaditzaileak, *Ailanthus altissima* horien artean, desagerrarazteko jarduketak egin ziren. Erabilitako metodoa izan zen landareak ipurditik ebaki eta motzondoetan gatzak jartzea. 2017ko udaberrian egiaztatu ahal izan zenez, aplikazio-eremu horietan ez zen emaberritza izan.

- 2019an flora exotiko inbaditzailea kentzeko lana egin zen, POST-LIFE TERRITORIO VISÓN LIFE09NAT/ES/000521 deiturikoaren konpromisoen baitan, Arga-Aragoiko Behe Tarteak KBeko eremuan. Trataturiko espezieen artean *Ailanthus altissima* ere bazegoen.

Kontsultaturiko iturri desberdinen iritziz, *Ailanthus altissima* guztiz desagerraraztea oso zaila da. Horretarako metodo mekanikoak eta kimikoak baliatu behar dira, eta tratamenduak behin eta berriz egin behar dira. Espezie exotiko inbadi-

tzaileak desagerrarazteko lana modu zorrotz eta jarraituan egin behar da zenbait urtetan zehar.

Ibaien ekosistema bere egoera naturaletik hurbil mantentzea *Ailanthus*aren eta beste espezie exotiko inbaditzaileen barreiatzea murrizteko aukera bat izan daiteke. Hori dela eta, ibai-ekosistemen berreskuratzeak lehentasunezko helburua izan behar du, ekosistema naturalak kontserbatzeko eta espezie exotikoak desagerrarazteko ez ezik, ibaien ur-goraldiak saihesteko.

Hau esanda, beharrezkoa da nabarmentzea Nafarroako espezie exotiko inbaditzaileen zerrenda luzea dela eta, hortaz, ahaleginak norabide eraginkorrenetara bideratu behar direla. Hori dela eta, Landa Garapeneko eta Ingurumeneko Departamentua espezie inbaditzaileen zerrendak berrikusten ari da une honetan, bai eta jarduketa ildoak prestatzen ere, arrisku handien kontrolaren eta balizko jarduketaren eraginkortasunaren irizpideei jarraikiz.

Oraingo ez dago partikularren eskura xede horrekin erabil dezaketen baliabiderik.

Informazio hau osatzeko, honekin batera doa espezie honi buruzko fitxa, Ingurumeneko Zuzendaritza Nagusiak prestatua.

Iruñean, 2020ko maiatzaren 20an

Landa Garapeneko eta Ingurumeneko kontseilaria: Itziar Gómez López

(Oharra: Aipatu fitxa kudeaketa parlamentarioko Ágora sisteman dago eskuragarri).

## **Galdera, pertsonen oinarrizko beharrezkoak bermatzeko dirusarrerak emateari eta Tuteran, Iruñean eta Zangozan errenta bermatua izapidetzeko denbora erreala buruzkoa.**

### **FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA**

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Bakartxo Ruiz Jaso andreak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, pertsonen oinarrizko beharrezkoak bermatzeko dirusarrerak emateari eta Tuteran, Iruñean eta Zangozan errenta bermatua izapidetzeko denbora erreala buruzkoa. Galdera 2020ko maiatzaren 5eko 50. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2020ko maiatzaren 19an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### **ERANTZUNA**

EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Bakartxo Ruiz Jaso andreak galdera bat egin du (10-20/PES-00060), pertsonen oinarrizko beharrezkoak bermatzeko diru-sarrerak emateari eta Tuteran, Iruñean eta Zangozan errenta bermatua izapidetzeko denbora erreala buruz. Honako hau da Nafarroako Gobernuak Eskubide Sozialetako kontseilariak jakinarazten duena:

A) Nafarroako Gobernuak ziurta al dezake beren oinarrizko beharrezkoak bermatzeko beharrezkoak dituzten diru-sarrerak ematen ari zaizkiena pertsona guztiei?

Lehen galderari dagokionez, aurretik esan behar da Foru Komunitateko babes sozialerako sistema, bertan bizi diren pertsonen oinarrizko beharrezkoak erantzuteko diru-sarrera nahikoak bermatzeko xedea duena, prestazio eta laguntza ekonomikoen sorta batez osatua dagoela, eta horiek eskuratu ahal izateko beharrezkoak dela zenbait baldintza betetzea, prestazio eta laguntza bakoitza eraentzen duten arauetan ezarritakoaren arabera. Aipatu laguntza eta prestazioak ondokoak dira:

Estatuko Administrazio Orokorraren araupe- eta kudeatze-eskumenekoak:

- Kotizaziopeko pentsioak
- Langabeziagatiko prestazioak
- Langabezia-sorospenak
- Familia-prestazioak

Eskumen konpartitua Estatuko Administrazio Orokorraren (araupe- eta kudeatze) eta Foru Komunitateko Administrazioaren (kudeatze) artean:

- Kotizaziorik gabeko pentsioak

Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren araupe- eta kudeatze-eskumenekoak

- Errenta bermatua
- Familian eta gizartean integratzeko laguntzak
- Gizarteratzeko aparteko laguntzak
- Zerga arloko neurriak:

– Kotizaziopeko erretiro-pentsioengatiko kenkari fiskalak

– Alarguntza-pentsioengatiko kenkari fiskalak (aurreiazkoak eta ez-aurreiazkoak)

– Kotizaziorik gabeko erretiro-pentsioengatiko kenkari fiskalen aurrerakinak

Eskumen konpartitua Foru Komunitateko Administrazioaren (kofinantzaketa) eta Nafarroako toki entitateetako administrazioen (kofinantzaketa, araupe- eta kudeatze) artean:

Larrialdi sozialeko laguntzak eta/edo gizarteratzeko prozesuetarakoak.

Prestazio horietako bakoitzaren egungo egoerari buruzko informazio xehaketa emateak eskatuko luke berariazko txosten bat egitea; horrenbestez, ezinezkoa da prestazio horietako bakoitzaren datu zehatzak ematea, are gehiago administrazio bat baino gehiagoren eskumenekoak direnean. Hori dela eta, erantzun honen xedea dira Departamentuak oinarrizko beharrezkoak erantzuten zaiela ziurtatzeko hartutako neurriak.

Lehenengoa.- Telelana ezarri da Diru-sarreraren Bermearren Ataleko langile guztientzat; hala ere, gutxienez administrari bat eta teknikari bat ari dira lan presentzialean González Tablas kaleko bulegoetan, bai ohiko kudeaketarako bai oinarrizko gizarte zerbitzuen eta Eskubide Sozialetako Departamentuko informazio orokorreko langileen arretarako. Era berean, Pentsioen Bulegoan era presentzialean ari dira lanean, eta gutxienez administrari baten eta bulegoburuaren arreta ziurtatuta dago.

Bigarrena.- Oinarrizko gizarte zerbitzuetarako informazio-gida bat prestatu da, zerbitzu horien kudeaketa orokorrari dagozkion aparteko neurriekin zerikusia duen guztia jasotzen duena. Bertan jaso dira erakunde desberdinek emandako neurriak, Diru-sarreraren Bermea eta Errenta Bermatua zeharkako eragina dutenak: Enplegu Zerbitzuak, Gizarte Segurantzak, Estatuko Enplegu Zerbitzu Publikoak (SEPE)... Halaber, erakunde bakoitzak erabiltzaileari arreta emateko ezarritako moduei buruzko berariazko datuak ematen dira, bai eta egungo egoerarako sortu edo egokitutako berariazko neurri eta baliabideak ere. Gida hau eguneratzen da sortzen diren beritasunak jasoz.

Hirugarrena.- Errenta Bermatua kudeatzeko berariazko neurriak:

Alarma egoera ezarri zenetik arindu egin da eskaeren balorazioa, eta lehentasuna eman zaio emate- eta berrezartze-prozedurari, prestaziorako eskubidea berori sortzen den hilabetean bertan ordaintzen dela ziurtatze aldera. Hori lortzeko, honako erabaki hauek hartu dira:

a) Izapidetzeari eta epeen eteteari dagokienez, alarma egoera baino lehen dokumentazioaren zain zeuden espedienteen prozedura jarraitzen da, beharrezko dokumentazioa aurkeztu bada.

b) Eskaera eta/edo berritzeak "Tramita" tresna telematikoen edo erregistro elektronikoren baten bidez izapidetzen dira. Paperean iritsi direnak eskaneatu egin dira, horien balorazioa erraztearren gehienbat telelanean ari diren teknikariei.

c) Espedienteen balorazioak baldintzak betetzen direla bermatzen du. Hala, familia-unitateetako pertsonak bete behar dituzte alarma egoerak egunean mantentzea galarazten ez duen betekizun guztiak: enplegu-eskaeran alta emanda egoeta, SEPEn, Gizarte Segurantzak eta abarretan egokitu ahal zaizkion prestazioak eskatzea eta abar.

d) Alarma egoeran salbuetsi egin da doako justizia jasotzeko eskaera egiteko betebeharra, ulertzen baita izapide hori, abokatuen elkargoan posta elektronikoki bidez eska badaiteke ere, ezin izanen dela bete egoera honek irauten duen bitartean. Horrenbestez, izapide hori ez badute hasi, espedienteak aldeko emaitzarekin ebazten da, eta alarma egoera amaitzean akatsa zuzendu beharko da.

e) Ahalik eta dokumentazio gutxien eskatzen da. Hori lortzeko, eskura ditugun aplikazio informatiko eta datu-baseen optimizazioa birpentsatu da, eta aplikazio berrietarako sarbidea eskatu da, Padrón esaterako, eta oinarrizko gizarte zerbi-

tzetako langileekiko koordinazioa areagotu da. Gainera, Ogasunaren 2019ko ekitaldiko datuak eta espedienteen atxikitako datu ekonomikoak berrikusi dira, aitortu beharreko zenbatekoaren zehaztapena arintzeko.

f) Edozein bide formal nahiz ez-formaletatik helarazitako dokumentazioa onartzen da, eta baliadun da oinarrizko gizarte zerbitzuetatik/auzo-unitateetatik helarazitako informazio oro, langileek lorturikoa eskatzaileekiko telefono-elkarrizketetan, errolatik eskuratuta edo beste edozein bidetatik.

g) 5.000.000ko kreditu berezi bat onetsi da, COVID-19ak eragindako krisiaren ondoriozko Errenta Bermatuari buruzko beharrezko erantzuteko bereziki sorturiko partidaren kargura, eta gainera, 1.000.000 euro gehiago eskatu dira Eskubide Sozialetako Ministerioaren Gizarte Funtz Bereziaren eta Agenda 2030en kargura, aurreikusita areagotu egingen dela osasun-krisiaren ondorioz Errenta Bermatuaren beharrezko gertatutako diren familien kopurua.

Laugarrena.- Beste prestazio batzuk kudeatzeko hartutako neurriak:

Gainera, Foru Komunitatearen Administrazioaren eskumeneko gainerako prestazioei dagokienez, erregistraturiko prestazio guztiak eskaneatu dira pixkanaka, telelanean ari diren teknikariei haien balorazioa errazteko. Hala, jarraitu ahal izan dugu gizarteratzeko laguntza bereziak izapidetzen, bai eta kotizaziorik gabeko erretiro- eta baliaezintasun-pentsioak eta kotizaziorik gabeko erretiro- eta baliaezintasun-pentsioagatikoko kenkari aurreratuen eskaerak ere.

Bosgarrena.- Milioi erdi euroko kreditu-gehigarri baten gaikuntza, COVID-19arekin loturikoak diren larrialdi sozialeko laguntzetarako, Nafarroako oinarrizko gizarte zerbitzuek banatu eta kudeatzeko. Nafarroako Udal eta Kontzejuen Federazioari eta oinarrizko gizarte zerbitzu bakoitzari jakinarazi zaio dagokion zenbatekoa, Koronabirusaren osasun krisiak eragindako inpaktuari aurre egiteko premiazko neurriak onesteko apirilaren 15eko 3/2020 Foru Lege-dekretuaren 6. artikuluan ezarritakoari jarraikiz.

Horrenbestez, Nafarroako Gobernuak esan dezake pertsona guztiei gutxieneko diru-sarrerak bermatzeko ahalegin guztiak egin direla dauden prestazioen bidez, balorazio- eta kudeaketa-sistemak egokituta erregistraturiko eskabideei azkar eta arin erantzun ahal izateko.

B) Tuteran, Iruñean eta Zangozan zenbat denbora erreal kostatzen ari zaie errenta bermatua

izapidetzea errenta bermatua lehendabiziko aldiz eskatu duten pertsoneri?

Tuteran, Iruñean eta Zangozan errenta bermatua lehendabiziko aldiz eskatu dutenen eskaerak izapidetzeari dagokionez, datuak aurkeztu aurretik esan behar da hautatutako espedienteak direla sisteman “Eskaera berria” gisa identifikatuak; hau da, sistemara lehen aldiz sartu direnak. Halaber, sisteman “Ez da bidezkoa” gisa identifikaturikoak ere sartu dira –deskribapen orokor horrekin erregistratzen dira espedienteak–, ulertzen delako

talde horretan egon daitezkeela sisteman lehen aldiz sartu diren familia-unitateen zenbait espediente. Espediente horiek baloratu ondoren, deskribapena aldatu eginen da espedientearen ezauzgarrien arabera: Eskaera berria, berritzea, antzinako jasotzailea eta abar. Hau da, baloratu gabeko eskaerak edota dokumentazioa aurkezteko zain daudenak, oraindik “Ez da bidezkoa” deskribapena dutenak, ez dira guztiak eskaera berriak, baina sartu ditugu uste dugulako horien artean halakorik egon daitezkeela.

- **Zangoza:**

Eskabidearen hilabetea	Balorazioaren hilabetea				Baloratu gabe	Eskaerak, guztira
	Otsaila	Martxoa	Apirila	Maiatza		
Urtarrila	3		1	1		5
Otsaila		3	1			4
Martxoa			1			1
Apirila				3	7	10
<b>Guztizko orokorra</b>	<b>3</b>	<b>3</b>	<b>3</b>	<b>4</b>	<b>7</b>	<b>20</b>

- **Tutera:**

Eskabidearen hilabetea	Balorazioaren hilabetea				Baloratu gabe/dokumentazio zain	Eskaerak, guztira
	Otsaila	Martxoa	Apirila	Maiatza		
Urtarrila	1	9	2			12
Otsaila	1	9	8			18
Martxoa			19	1	1	21
Apirila				3	40	43
<b>Guztizko orokorra</b>	<b>2</b>	<b>18</b>	<b>29</b>	<b>4</b>	<b>41</b>	<b>94</b>

- **Iruña:**

Eskabidearen hilabetea	Balorazioaren hilabetea				Baloratu gabe/dokumentazio zain	Eskaerak, guztira
	Otsaila	Martxo a	Apiril a	Maiatz a		
<b>Urtarrila</b>	17	89	17		4	<b>127</b>
<b>Otsaila</b>		60	38	3	1	<b>102</b>
<b>Martxoa</b>		1	111	5	5	<b>122</b>
<b>Apirila</b>			15	28	278	<b>321</b>
<b>Guztizko orokorra</b>	<b>17</b>	<b>150</b>	<b>181</b>	<b>36</b>	<b>288</b>	<b>672</b>

Hori guztia jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 14. artikulua betez.

Iruñean, 2020ko maiatzaren 18an

Eskubide Sozialetako kontseilaria: María Carmen Maeztu Villafranca





